



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 11

34. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (2. or.)

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan eraikuntza jasangarriaren arloko lidergoa ez galtzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.)

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion diru publikoarekin lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen inongo ikastetxeri. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.)

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako energia-politikaren lege-araubide integrala ezar dezan, taxutuz jardute jasangarriko eremu orokor bat, kontsumoaren plangintza, eta egungo nahiz etorkizuneko proiektuetarako ibilbide-orria eta bideragarritasunerako bidea. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.)

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan alokairuen iraunkortasun-indizea (ISA) errealitate bat izan dadin. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.)

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da dagozkion lege-xedapenak bultza ditzan 2022. urtea baliozko epe gisa gaitzeko, toki-erakundeek gastuak eta inbertsioak beren gerakinen kontura egin ahal izan ditzaten. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.)

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kirol-jarduera funtsezko jardueratzat hartzea, eta Espainiako Gobernuari eskatzen zaio jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) jaisteko. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (6. or.)

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onetsi dezan Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berri bat. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.)

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Calatrava antzokizinemaren erreformaren kostu osoa. Kultura eta Kiroleko Batzordeak ezetsi du (6. or.)

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko martxoaren 4an egindako bileran, erabaki du aintzat ez hartzea Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena, zeina Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu baitzuen eta 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan eraikuntza jasangarriaren arloko lidergoa ez galtzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan eraikuntza jasangarriaren arloko lidergoa ez galtzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Hartu beharreko neurriak har ditzan eraikuntza jasangarriaren arloko lidergoa ez galtzeko eta kontsumorik ia gabeko eraikinak ezartzeko, “energia positiboko” eraikinak ezarriz eta lehentasuna zaharberritzeari emanez, eraikuntzaren gainetik.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak, toki entitateekin lankidetzan, ezohiko neurri ekonomi-

koak ezarriko ditu 2021-2023 aldirako Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Plan Berezi bat sustatzeko. Plan horrek baliabide berriak izanen ditu, partikularrentzat zuzemenak arintzeko neurriak jasoko ditu eta etxebizitza-parkea –bereziki, alde zaharretakoa– zaharberritzeko asmo handiko helburuak ezarriko ditu.

2. Eraikuntzaren sektorea industrializatzeko oinarriak ezar ditzan, inplikaturako eragile eta erakunde guztien parte hartzearekin, aukera bat baita ingurumenarekiko errespetuarekin eta efizientzia handiagoarekin eraikitzeko eta kalitate handiagoko enpleguak sortzeko.

3. Pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko plan bat taxutu dezan”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion diru publikoarekin lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen inongo ikastetxeri.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion diru publikoarekin lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen inongo ikastetxeri”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du sexu-segregazioan oinarritutako hezkuntzaren eredia baztertzaila dela eta bultzatzen dituen

balio eta harreman ereduak ez datozela bat azken urteotan Nafarroan egindako urratsekin, hezkidetzarekin eta berdintasunean oinarritutako politika publikoekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ez dezala diru publikoz lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen hezkuntza eredia duen inongo ikastetxerik, eta hori 2021-22. ikasturtetik aurrera gauzatzeko plana aurkez dezan hiru hilabeteko epean”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako energia-politikaren lege-araubide integrala ezar dezan, taxutuz jardute jasangarrirako eremu orokor bat, kontsumoaren plangintza, eta egungo nahiz etorkizuneko proiektuetarako ibilbide-orria eta bideragarritasunerako bidea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako energia-politikaren lege-araubide integrala ezar dezan, taxutuz jardute jasangarrirako eremu orokor bat, kontsumoaren plangintza, eta egungo nahiz etorkizuneko proiektuetarako ibilbide-orria eta bideragarritasunerako bidea”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako energia-politikaren lege-araubide integrala ezar dezan, taxutuz jardute jasangarrirako eremu orokor bat, kontsumoaren plangintza, eta egungo nahiz etorkizuneko proiektuetarako ibilbide-orria eta bideragarritasunerako bidea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzara publiko-pribatuari bultzada ematen segi dezan, klusterrak eta guneak eratuz eta sendotuz, haietan erakunde publikoek, enpresek, unibertsitateek eta zeresana daukaten gizarte zibileko gainerako kolektiboek elkarreraginean jardun dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan kontrol publikoko araubide argi baten pean egon daitezela ustiapen-lizentzia publiko bidezko emakida bidez baimenduak izanik energia berriztagarrietan oinarrituta dauden parkeak, orekari euts dakion lurraldearen, ingurumenaren, paisaiaren, gizartearen eta ekonomiaren alorretan”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan alokairuen iraunkortasun-indizea (ISA) errealitate bat izan dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan alokairuen iraunkortasun-indizea (ISA) errealitate bat izan dadin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren alde aurreko lanei ekin diezaien, lortze aldera alokairuen iraunkortasun-indizea (ISA) errealitate bat izatea lehenbailehen, gehienez ere 2022ko urtarrilaren 1ean:

– Zuzeneko zergetan (PFEZ) lehentasuna eta penalizazioa jarriz etxebizitzaren alokairuari, haien errentak ISAtik behera edo gora egiten duenean.

– Lehentasuna eta penalizazioa jarriz kontratu berrien errentak mantentzeari edo handitzeari, etxebizitza beraren aurreko kontratuekin alderatuta.

– Etxebizitzak ISAtik gora alokatzea debekatuz, jabeen elkarrearen bidez zaharberritzeko dirulaguntzak eskuratu badituzte.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bateragarri egin ditzan alokairuen iraunkortasun-indizeari loturiko neurri fiskalak eta etxebizitza hutsengatik jarduketa eta penalizazio fiskalak. Horretarako, Nafarroako Gobernua berriz ere premiatzen da etxebizitza hutsen errolda burutu dezan”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da dagozkion lege-xedapenak bultza ditzan 2022. urtea baliozko epe gisa gaitzeko, toki-erakundeek gastuak eta inbertsioak beren gerakinen kontura egin ahal izan ditzaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko martxoaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da dagozkion lege-xedapenak bultza ditzan 2022. urtea baliozko epe gisa gaitzeko, toki-erakundeek gastuak eta inbertsioak beren gerakinen kontura egin ahal izan ditzaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du dagozkion lege-xedapenak bultza ditzan, zertarako-eta, 2022an gaur egun etenda dauden zerga- eta gastu-arauak berraktibatutako arren, ekitaldi hori baliozko epe gisa gaitzeko, toki-erakundeek gastuak eta inbertsioak beren gerakinen kontura egin ahal izan ditzaten, egungo pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozial larri eta seguruenik luzei aurre egin ahal izateko”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kirol-jarduera funtsezko jardueratzat hartzera, eta Espainiako Gobernuari eskatzen zaio jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) jaisteko.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2021eko martxoaren 9an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kirol-jarduera funtsezko jardueratzat hartzera, eta Espainiako Gobernuari eskatzen zaio jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) jaisteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kirol-jarduera funtsezko jardueratzat har dezan, halako moduz non halakotzat hartu ahal izanen baita pandemian hura muga dezaketen balizko murriztapenak aplikatzeko garaian”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onets dezan Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berri bat.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko martxoaren 4an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onets dezan Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berri bat”. Mozioa Marta Álvarez Alonso andreak aur-

keztu tzuen eta 2021ko martxoaren 2ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Calatrava antzoki-zinemaren erreformaren kostu osoa.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2021eko martxoaren 9an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Calatrava antzoki-zinemaren erreformaren kostu osoa”. Mozioa

Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztu zuen eta 2021ko otsailaren 16ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

